



UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

**EKINTZAILETASUNA BULTZATZEKO ETA ENPRESEN LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO (KONTRATAZIOAK,
INBERTSIOAK ETA LANKIDETZA EGITASMOAK)
DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK**

Espediente kodea 2018IDOO0001

ATARIKO ATALA: OINARRI OROKORRAK

1. artikulua. Diru-laguntza deialdiaren nondik norakoak.

Urola Kostako Udal Elkarteak eskualdeko garapen sozioekonomikoa sustatzea dute xede. Xede hori lortze aldera, bada, honako esparru hauek hartzen ditu langai: enplegua lortzeko pertsonen aukerak hobetzea, enpresak sortzen laguntzea, lehiakortasuna hobetzea eta lekuan lekuko proiektu estrategikoak sustatzea.

Egiteko hori aintzat hartuta, diru-laguntza deialdi honen helburua hirukoitza da: alde batetik, enpresei laguntzea lehiakortasuna hobetzen; beste alde bestetik, enplegurako politika aktiboak indartu eta lan munduan sartzeko ibilbidean dauden pertsonen laguntzea, eta azkenik, eskualdeko lankidetzak proiektuak bultzatzeko egitasmoak bultzatzea.

2. artikulua. Deialdiaren objektua.

Horrenbestez, oinarri hauen helburua da Urola Kostako Udal Elkarteak, bere eskumenen baitan, ekintzailetza eta enpresen lehiakortasuna (kontratazioak, inbertsioak eta, hezkuntza zentro eta enpresen arteko lankidetzak) sustatzeko asmoz egin duen diru-laguntza deialdia arautzea.

Programa honen bidez, lau lerro hauetako jardueretarako laguntzak emango dira:

- Jarduera ekonomiko edo proiektu berrien sustapena: jarduera ekonomikoaren ideia landu eta enpresa sortzeko laguntzak (ikus I. diru-laguntza lerroa).
- Kontratazioetarako laguntzak (ikus II. diru-laguntza lerroa).
- Inbertsioetarako laguntzak (ikus III. diru-laguntza lerroa).
- Erdi edota goi mailako hezkuntza zentro eta enpresen arteko lankidetzak egitasmoetarako laguntzak (ikus IV. diru-laguntza lerroa).

Atariko atal honetan daude zehaztuta deialdi honek arautzen dituen lau diru-laguntza lerroen oinarri orokorrak. Diru-laguntza-lerro bakoitzari dagozkion oinarri zehatzak diru-laguntza lerro bakoitzaren atalean daude zehaztuta.

3. artikulua. Eremua.

Laguntza hauek orohar Udal Elkarteak osatzen duten udalerrietako, hau da, Aia, Getaria, Orrio, Zarautz eta Zumaiako (hemendik aurrera eskualdeko) pertsona, erdi edo goi mailako hezkuntza zentro, enpresa eta ekintzaileentzat dira. Nolanahi ere den, diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri zehaztetan daude zehaztuta lerro bakoitzeko onuradunak.



Diru-laguntza deialdira aurkezten diren pertsona, erdi edo goi mailako hezkuntza zentro, enpresa nahiz ekintzaileek zorrotz bete beharko dute indarrean dagoen ekonomia, zerga eta lan arloko araubidea.

4. artikulua. Diruz lagundutako jarduera eta inbertsioen epealdia.

Diruz lagunduko dira oinarri hauen 2. artikuluan zehaztutako jarduerak (jarduera ekonomiko berrien sustapena, kontratazioak eta lankidetzak proiektuak) eta inbertsioak, 2018an zehar gauzatzen direnak.

5. artikulua. Aurrekontu-kreditua.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzen bidez, orotara, gehienez ere, 305.000,00 euro emango dira. Kreditu horiek onartu eta gordeta daude Urola kostako Udal Elkartearen aurrekontuko 1. 03.471.01.433.00.2018 kontu-sailean. Deialdi honetarako aurreikusitako zenbatekoa honela banatuko da diru-laguntza lerroen arabera:

Diru-laguntza lerroa		Zenbatekoa
1	Jarduera ekonomikoak sortzeko diru-laguntzak	70.000,00
2	Kontratazioetarako diru-laguntzak	115.000,00
3	Inbertsioetarako diru-laguntzak	90.000,00
4	Lankidetzarako diru-laguntzak	30.000,00
	Guztira	305.000,00

Diru-laguntza lerro batean aurreikusitako kredituak agortzen ez badira edo diru-laguntza ematea onartu ondoren bertan behera geratzen bada (uko egin zaiolako edo baldintzak bete ez direlako), soberakina beste lerroetara pasako da, hurrenkera honetan: lehendabizi jarduera ekonomikoak sortzeko diru-laguntzen lerroa; ondoren, kontratazioetarako diru-laguntzen lerroa; gero, lankidetzak egitasmoetarako diru-laguntzen lerroa; eta, azkenik, inbertsioetarako diru-laguntzen lerroa.

Halaber, deialdira aurkezten diren eskabideekin diru-laguntza hauetarako kreditua agortzen ez bada, bigarren deialdi bat egin ahal izango da. Deialdi horrek lehen deialdi honen oinarri berberak izango ditu, eskabideak aurkezteko epeari dagozkion oinarriak izan ezik. Bigarren deialdi hori iragarriko da Urola Kostako Udal Elkartearen webgunean eta komunikabideen bidez.

6. artikulua. Deialdiaren iragarpena.

Deialdi hau eta oinarriak argitaratu eta iragarriko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Urola Kostako Udal Elkartearen webgunean:

<http://www.urolakosta.eus/eu/dirulaguntzak>

Era berean, diru-laguntza eskabidea egiteko ereduak eta zuriketak egiteko eranskinak Urola Kostako Udal Elkartearen webgunean argitaratuko dira.



7. artikulua. Eskabideen balorazioa eta lehiaketa.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira, bigarren lerroko "prestakuntza bonoen" bidezko kontratazioen diru-laguntzak izan ezik. Eskabideen balorazioa egingo da diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri zehatzetan ezarritako irizpideen arabera.

Eskabideen balorazioan berdinketarik gertatzen bada, eskabideen Sarrera Erregistroko hurrenkera hartuko da kontuan.

8. artikulua. Eskabideak aurkeztea eta izapidetzea.

Eskaerak aurkeztu behar dira Urola Kostako Udal Elkartearen Erregistro Orokorrean (Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz) edo, nahi izanez gero, bide telematikoak erabiliz (Udal Elkartearen egoitza elektronikoan, www.urolakosta.eus).

Hona hemen eskabideak aurkezteko epeak, diru-laguntza lerroaren arabera:

		Eskabideak aurkezteko epea	
		Hasi	Amaitu
1	Jarduera ekonomiko berriak, enpresak sortzea	Deialdia GAOn argitaratu eta hurrengo egunean	2018-10-19
2	Enpleguaren sustapena, kontratazioak	2018-06-01	2018-12-28
3	Inbertsioak	Deialdia GAOn argitaratu eta hurrengo egunean	2018-10-19
4	Lankidetzeta-egitasmoak	Deialdia GAOn argitaratu eta hurrengo egunean	2018-06-29

GAO: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Diru-laguntza lerro bakoitzaren atalean dago zehaztuta aurkeztu behar diren dokumentuen zerrenda. Nolanahi ere den, Urola Kostako Udal Elkarteak eta Balorazio Mahaiak beharrezko jotzen dituzten dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dizkiete eskatzaile nahiz onuradunei diru-laguntzak onartu, zuritu edota ordaintzeko izapideetan.

9. artikulua. Dokumentuak konpultsatzea.

Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren jatorrizko dokumentuen kopia konpultsatuak egingo dira Urola Kostako Udal Elkartearen sarrera erregistroan (Urdaneta bidea 6, Zarautz). Horretarako, jatorrizko dokumentuarekin batera kopia aurkeztuko da.



Eskabidea bide telematikoen bidez (Urola Kostako Udal Elkartearen egoitza elektronikoaren bidez) aurkezten bada, aurkeztu beharko dira dagokion erakundeak egindako dokumentu elektronikoak.

10. artikulua. Datuak egiaztatzea.

Urola Kostako Udal Elkarteak, eskatzaileak dokumenturik aurkeztu beharrik izan gabe, zuzenean egiaztatuko ditu, dagokion administrazio publikoarekin harremanetan jarrita, ondoko datuak: eskatzailearen errolda datuak, udaleko zerga betebeharren egoera, Gizarte Segurantzako betebeharren egoera, jarduera ekonomikoaren alta egoera eta Foru Ogasuneko betebeharren egoera.

Datu horiek zuzenean egiaztatzea ezinezkoa baldin bada, arazo edo gorabehera teknikoengatik edo bestelakoengatik, Udal Elkarteak eskatzaile edo onuradunari datu horien ziurtagiriak aurkezteko eskatuko dio.

11. artikulua. Komunikazioak.

Eskabidea osatzeko errekerimendua, diru-laguntzak ebazteko jakinarazpena eta zuriketa eta ordainketen inguruko komunikazioak posta elektronikoaren bidez jakinaraziko zaizkio eskatzaile edo onuradunari (eskabidean adierazten duen posta elektronikoko helbidera bidaliko zaizkio). Halaber, onuradunek posta elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea osatzeko dokumentuak nahiz zuriketak egiteko eranskin eta dokumentuak.

12. artikulua. Datuen tratamendua.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoak, arautzen duena betetzeko, Urola Kostako Udal Elkarteak deialdi honen bidez eskuratzen dituen datu pertsonalak txertatuko ditu "prestakuntza eta enplegu programak" eta "eskualdeko enpresak" izeneko fitxategietan. Fitxategi horiek arautzen ditu Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen 2010eko otsailaren 4ko akordioak (Urola Kostako Udal Elkartearen datu pertsonalen fitxategiak arautzeko akordioak).

Horrez gain, pertsona interesdunek datuak eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta haien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, honako helbidera idatzia bidalita: Urola kostako Udal Elkarte, Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz.

13. artikulua. Balorazio Batzordea, diru-laguntzen proposamena eta ebazpena.

Balorazio Batzorde bat eratuko da diru-laguntza eskaerak baloratu eta diru-laguntzen proposamena egiteko.

Balorazio Batzordea kide anitzeko organoa izango da eta kideak Urola Kostako Udal Elkarteak izendatuko ditu. Balorazio Batzordea honako hauek osatuko dute:

Batzordeburu: Udal Elkarteko lehendakaria.

Batzordekide:

- Udal Elkarteko Prestakuntza eta Enpleguko arduraduna.
- Udal Elkarteko Enpresa Sustapeneko arduraduna.
- Udal Elkarteko Enpresentzako Zerbitzuetako teknikari bat.



- Udal Elkarteko Euskara eta Komunikazio arduraduna.
 - Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko bi kide.
- Idazkari: Udal Elkarteko idazkaria.

Diru-laguntzak ebaztea, zuriketak onartzea eta ordainketak agintzea Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariaren eskumena izango da.

14. artikulua. Bateriaezintasunak.

Diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri zehaztetan daude zehaztuta diru-laguntza hauen bateraezintasunak.

15. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea.

Oinarri hauetan jasotako diru-laguntzen ordainketa eta zuriketak egingo dira diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri zehaztetan zehaztutako moduan.

Diru-laguntzak ordainduko dira banku transferentzia bidez. Ordainketak egingo dira eskatzaileak eskabidean adierazitako kontu zenbakira, 30 eguneko epearen barruan, ordainketa bakoitza egitea onartzen den egunetik kontatzen hasita.

16. artikulua. Oinarriak ez betetzea.

Onuradunak oinarri hauetan ezarritako baldintzak ez betetzeak diru-laguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du. Hori gertatzen bada, onuradunak jasotako diru-laguntzaren zatia itzuli egin beharko du eta Udal Elkarteak eskubidea izango du dagozkion atzerapen interesak exijitzeko.

Halaber, diruz lagundutako ekimenak (enpresa sortzea, kontratazioak, inbertsioak, lankidetzak egitasmoak) ez baditu bete eskabidean adierazi eta diru-laguntza onartu eta emateko irizpideetan baloratutako ezaugarriak, honela jokatu da: lehendabizi, eskabidearen balorazioa berrikusi egingo da, diruz lagunduta burutu den ekimenaren ezaugarriak kontuan hartuta. Ondoren, balorazio berriaren arabera lortutako puntuazioa hartuko da kontuan diru-laguntza emateko ebazpena berresteko edo ukatzeko. Bigarren hori gertatzen bada, onuradunak diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo du, jasotako diru-laguntzaren zatia itzuli egin beharko du eta Udal Elkarteak eskubidea izango du dagozkion atzerapen interesak exijitzeko.

17. artikulua. Oinarriak interpretatzea.

Diru-laguntzak kudeatzeko izapideetan sortzen diren gorabeherak interpretatu eta dagokiona erabakitzeko eskumena Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariari dagokio. Nolanahi ere den, gorabeheraren izaera kontuan hartuta, Lehendakariak Balorazio Batzordearen iritzia jasoko du.

18. artikulua. Araudi aplikagarria.

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan honako araubidea aplikatuko da: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa (azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) eta lege hori garatzen duen Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala).



19. artikulua. Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka berraztertzeke errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Epea, bi kasuetan, hasiko da kontatzen deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Diru-laguntza emateko ebazpenaren eta zuriaketak onartzeko eta ordainketak egiteko ebazpenen aurkako berraztertzeke errekurtsoak Urola Kostako Udal Elkarteko Lehendakartzari aurkeztuko zaizkio.



OINARRI ZEHATZAK

I. DIRU-LAGUNTZA LERROA

JARDUERA EKONOMIKO BERRIEN SUSTAPENA

20. artikulua. Xedea.

Lerro honetako laguntzen xedea da Udal Elkarteak osatzen duten udalerrietan (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaian) jarduera ekonomiko berriak (enpresa berriak) sortzea. Diru-laguntza hauek itzuli beharrik gabekoak dira.

21. artikulua. Onuradunak.

Laguntzen onuradunak izango dira honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak:

- Jarduera ekonomiko berria Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta Gizarte Segurantzaren dagokion Erregimenean eman beharreko alta Udal Elkarteak osatzen duten udalerriren batean ematea (Aia, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaia).
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren hasierako alta 2018an egitea.
- Diru-laguntza publikoak lortzeko aukeretatik baztertuta ez egotea.

Laguntza hauek lortzerik ez dute izango ondokoak:

- Jarduera ekonomiko berria abian jarri aurreko 24 hilabeteetan jarduera berean edo berdintsuan titular moduan, bakarka nahiz sozietatean, jardundako sustatzaileen enpresek.
- Aurreko 18 hilabeteetan lokal berean eta jarduera berean aritu diren enpresetako lehen mailako ahaideek, titularitate aldaketaren ondorioz sortutako enpresak direnean. Hala ere, justifikatutako arrazoiak baldin badaude (adibidez erretiroa, ezgaitasuna, titularraren heriotza edota ezinbesteko arrazoiak), lehen mailako ahaideen arteko titularitate aldaketen ondorio diren jarduera berri edo enpresek ere aukera izango dute diru-laguntza jasotzeko.
- Partaidetza publikoa duten enpresek.

22. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunen betebeharrak dira:

- Jarduera ekonomikoari eustea gutxienez 10 hilabetez, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematen denetik hasita.
- Foru Ogasuneko, Gizarte Segurantzako eta jarduera ekonomikoari dagokion udaleko zerga betebeharrak egunean ordainduta edukitzea.
- Jarduera ekonomikoa sortu bada diru-laguntzen deialdi hau argitaratu aurretik (betiere 2018-01-01etik aurrera), jarduera ekonomikoaren epe ertaineko bideragarritasuna egiaztatzea.
- Jarduera ekonomikoa hasiko bada diru-laguntzen deialdi hau argitaratu ondoren (betiere 2018-12-31 baino lehen), jarduera ekonomikoaren bideragarritasun plana egitea Urola Kostako Udal Elkartearen Enpresa Sustapeneko Zerbitzuarekin eta zerbitzu horren oniritzia jasotzea.



23. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntzaren kopurua honela kalkulatu da: **diru-laguntzaren oinarria 1.000,00 eurokoa** izango da. Kopuru horri gehituko zaizkio taulan agertzen diren kopuruak, sustatzailearen eta jardura proiektuaren ezaugarrien arabera:

	Oinarriari € gehitu
Sustatzaileen edo bazkideen erdia, gutxienez, emakumeak izatea.	100 €
Sustatzaileen edo bazkideen erdia, gutxienez, >=25 eta <45 adin tartekoa izatea.	100 €
Sustatzaileen edo bazkideen erdia, gutxienez, >=45 adinekoa izatea.	200 €
Sortutako jardura izatea lehen sektorekoa edo bigarren edo hirugarren sektoreko bi jardura-mota hauetakoa: itsasoa edo sormen industriak (E eranskinaren arabera).	200 €

24. artikulua. Balorazio irizpideak.

Atal honetako diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Eskabideen balorazioa egingo da irizpide hauen arabera:

	Puntuak
Sortutako jardura izatea lehen sektorekoa edo bigarren edo hirugarren sektoreko bi jardura-mota hauetakoa: itsasoa edo sormen industriak. (E eranskinaren arabera).	10
Sustatzaileen edo bazkideen erdia, gutxienez, emakumeak izatea.	10
Sustatzaileen edo bazkideen erdia, gutxienez, Urola Kostako herriren batean erroldatuta egotea, gutxienez urte 1 (deialdia argitaratzen den egunetik atzera kontatuta).	5
Egitasmoa epe ertainean bideragarria izan daitekeela egiaztatzea.	10
Bideragarritasun plana Urola Kosta Udal Elkartearen Enpresa Sustapen Zerbitzuaren laguntzaz garatua izatea edo/eta Urola Kostako ekintzailatza programan parte hartu izana.	10

Balorazio Mahaiak goiko taulan ezarritako puntuetan balio partzialak aplikatu ahal izango ditu, irizpide jakin bat osorik betetzen ez bada.

Eskabideen balorazioan berdinketarik gertatzen bada, eskabideen Sarrera Erregistroko hurrenkera hartuko da kontuan.



25. artikulua. Eskabidea aurkezteko data baino lehen sortutako jarduera ekonomikoak (betiere, 2018-01-01etik aurrera): eskabidea, zuriketa eta ordainketak.

Ondoren daude zehaztuta eskatzaile horiek eskabidea egiteko aurkeztu behar dituzten dokumentuak, eta diru-laguntza jasotzeko eta zuriketak egiteko modu eta epeak.

25.1. Atal honetako diru-laguntzen eskabideak aurkeztu behar dira oinarri hauen 8. artikuluan ezarritako leku, modu eta epealdian. Diru-laguntza eskatzeko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) Eskabidea: A eranskina
- b) Eskatzaile(ar)en edo ordezkari(ar)en NANren fotokopia konpultsatua.
- c) Alta emandako jardueraren 840 ereduaren fotokopia konpultsatua.
- d) Jardueraren bideragarritasuna. Diru-laguntza eskuratzeko beharrezkoa izango da jarduera ekonomikoaren edo egitasmoaren epe ertaineko bideragarritasuna egiaztatzea. Horretarako, eskabidearekin batera aurkeztu beharko da jarduera ekonomikoaren **memoria laburra** (jardueraren deskribapena, eskaintzen diren zerbitzu/produktuak, merkatua, bezeroak, hornitzaileak eta jarduera ulertzeko interesgarri gerta litekeen bestelako informazioa) eta, une horretako jarduera ekonomikoaren **emaitza kontua**, kontabilitateko plan orokorraren arabera egina, (azalpen laburra erantsita).

25.2. Diru-laguntzen zuriketa eta ordainketak: Diru-laguntza ematea onartzen denean %50 ordainduko da. Horretarako, honako dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- a) A1 eranskina.

Gainerako %50 ordainduko da jarduerak 10 hilabete bete ondoren (altaren datatik kontatzen hasita), amaierako justifikazioa aurkeztu eta ontzat jotzen denean. Amaierako justifikazioa egiteko honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- a) A2 eranskina.

26. artikulua. Eskabidea aurkeztu ondoren sortuko diren jarduera ekonomikoak (betiere, 2018-12-31 baino lehen): eskabidea, zuriketa eta ordainketak.

Ondoren daude zehaztuta eskatzaile horiek eskabidea egiteko aurkeztu behar dituzten dokumentuak, eta diru-laguntza jasotzeko eta zuriketak egiteko modu eta epeak.

26.1. Atal honetako diru-laguntzen eskabideak aurkeztu behar dira oinarri hauen 8. artikuluan ezarritako leku, modu eta epealdian. Diru-laguntza eskatzeko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) Eskabidea: A eranskina
- b) Eskatzaile(ar)en edo ordezkari(ar)en NANren fotokopia konpultsatua.

26.2. Jarduera ekonomikoaren edo egitasmoaren bideragarritasuna. Diru-laguntza ematea onartzen zaien eskabideek jarduera ekonomikoaren edo egitasmoaren epe ertaineko



bideragarritasuna egiaztatu behar dute, diru-laguntza onartu ondoren. Bideragarritasuna behar bezala egiaztatzen ez badute, onartutako diru-laguntza galdu egingo dute. Honela egiaztatuko dute bideragarritasuna:

- Diru-laguntza onartzeko erabakia hartzen den unean jarduera dagoeneko alta emanda baldin badago, 25.1.d) puntuan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, jardueraren bideragarritasuna egiaztatzeko.
- Aldiz, diru-laguntza onartzeko erabakia hartzen den unean jarduera alta eman gabe baldin badago, ezinbestekoa izango da egitasmoaren bideragarritasun-plana aurkeztea. Horretarako, eskatzaileak bere jarduera egitasmoaren bideragarritasun plana egingo du Urola Kostako Udal Elkartearen Enpresa Sustapeneko Zerbitzuan (beste erakunderen baten laguntzaz edo ekintzaileak bere kabuz eginez gero Enpresa Sustapeneko Zerbitzuaren onarpena jaso beharko du). Bideragarritasun-plana ontzat jo ondoren, eskatzaileak hilabete bateko epea izango du jarduerari alta emateko izapideak egin eta egiaztagiria Udal Elkarteari aurkezteko. Jarduera berriari alta emango zaio, beranduenez, 2018ko abenduaren 31n.

26.3. Diru-laguntzen zuriketa eta ordainketak. Diru-laguntza ordainduko da 2 zatitan:

Diru-laguntza ematea onartu eta jarduera ekonomikoa altan ematen denean diru-laguntzaren %50 ordainduko da. Altan eman dela egiaztatzeko, honako dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- a) A1 eranskina.
- b) Alta emandako jardueraren 840 ereduaren fotokopia konpultsatua

Gainerako %50 ordainduko da jarduerak 10 hilabete bete ondoren (altaren datatik kontatzen hasita), amaierako justifikazioa aurkeztu eta ontzat jotzen denean. Amaierako justifikazioa egiteko honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- a) A2 eranskina.

27. artikulua. Gorabeherak jakinarazteko betebeharra.

Onuradunaren betebeharra da diruz lagundutako jardueraren (enpresa sortzearen) inguruko gorabeherak Urola Kostako Udal Elkarteari jakinaraztea, gertatu eta berehala, hala nola: diru-laguntza onartu eta bideragarritasun-plana egin ondoren jarduera ekonomikoa ez sortzea erabakitzea; bideragarritasun plana egin eta jarduera ekonomikoa sortzeko ezarritako epea betetzeko ezintasuna; diru-laguntzaren zenbatekoa finkatzeko baldintzaren baten aldaketa eta abar.

28. artikulua. Bateriaezintasunak.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza hau bateragarria da helburu bererako beste erakunde publikoek emandako diru-laguntzekin.



II. DIRU-LAGUNTZA LERROA

ENPLEGUAREN SUSTAPENA: LANGILEAK KONTRATATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

29. artikulua. Xedea.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak emango zaizkie enpresei eskualdeko langabeak kontratatzeke (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaiaiko langabeak).

Enplegua sustatzeko diru-laguntza lerro honek bi programa ditu kontratazioak diruz laguntzeko:

Programa	Euroak
Prestakuntza bonoaren programa	75.000,00
Kontratazio + Jarraipena programa	40.000,00

30. artikulua. “Prestakuntza Bonoaren” programa.

Prestakuntza Bonoaren programak prestakuntza eta kontratazioa uztartzen ditu.

Urola Kostako Udal Elkarteak gaur egun enpresek eta lan-merkatuak baloratzen eta eskatzen dituzten zeharkako gaitasun/trebetasunak nahiz gaitasun tekniko bereziak lantzeko prestakuntza-ikastaroak/egitasmoak antolatu eta eskaintzen ditu eskualdeko langabeentzat (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia).

Prestakuntza/egitasmo horiek egin eta gainditzen dituzten pertsonak prestakuntza bonoa eskuratzen dute eta enpresa batek prestakuntza bonoa duen langabea kontratatzen badu atal honek arautzen duen diru-laguntza eskura dezake. Beraz, diru-laguntzaren onuraduna prestakuntza bonoa duen langabea kontratatzen duen enpresa da.

Prestakuntza bonoa lortzeko ikastaroak doakoak dira, Udal Elkarteak eskaintzen ditu, 100 ordu (edo gehiago) izaten dituzte eta zeharkako konpetentziak nahiz konpetentzia teknikoak lantzen dira. Udal Elkarteak eguneratuta edukiko du prestakuntza-bonoa lortzeko ikastaroen eta bonoa eskuratu duten eta diru-laguntza hauetarako hautagai diren pertsonen zerrenda.

30.1. Kontratuaren ezaugarriak.

Diruz lagundutako kontratua izango da gutxienez 6 hilabetekoa eta lanaldi erdikoa edo lanaldi osokoa. Halaber, diruz lagundutako kontratuaren alta datak izan behar du 2018koa

Prestakuntza bonoa eskuratu duen pertsonak langabezia egoeran egon behar du diruz lagundutako kontratua egiten den unean.

Diru-laguntza bidez egindako kontratazioak enplegu-sorrera garbia eragin behar du enpresan, hau da: diru-laguntzaren bidez kontratatutako pertsona laneratu den hilabete horretako enpresako langileen kopuruak izan behar du aurreko 3 hilabeteetan enpresak batez beste zuen langile kopurua baino



handiagoa. Plantillaren batz bestekoa kalkulatzeko lanaldi osoak eta partzialak hartuko dira kontuan (azken horien kasuan lan egindako orduen proportzioan).

Jarduera berrien kasuan, ezingo da erabili laguntza-mota hau norbere burua kontratatzeke.

30.2. Prestakuntzaren hartzaileak.

Prestakuntza Bonoaren programan parte hartzeko baldintzak hauek bete behar dituzte langabeek:

- Eskualdean erroldatuta egotea (Aia, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaia).
- Goi mailako ikasketak edukitzea (goi mailako Lanbide Heziketa edo goragoko ikasketak).
- Ikastaroa/egitasmoa egiteko unean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egotea.
- Kontratatzeke unean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egotea, langabezia egoeran.

30.3. Diru-laguntzen onuradunak.

Prestakuntza Bonoaren diru-laguntzaren onuradun izango dira ondoko baldintza hauek betetzen dituzten enpresak:

1. Edozein forma juridikoko enpresa edo erakunde enplegatzailea izatea. Egoitza (helbide soziala edo lantokia) eskualdean (Aia, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaia) dutenek lehentasuna izango dute, diru-laguntza handiagoa jasoz.
2. IAE-JEZn alta emanda egotea eta zerga horren betebeharrak egunean ordainduta izatea, betiere enpresaren jarduerak zerga hori ordaintzea eskatzen badu. Zerga ordaintzetik salbuetsita egonez gero, horrela adieraziko da zinpeko adierazpen bidez. Enpresa eskatzailea eskualdekoa baldin bada, baldintza horiek Udal Elkarteak zuzenean egiaztatuko ditu dagokion administrazioarekin harremanetan jarrita. Enpresa eskatzailea eskualdekoa ez bada, baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzeke ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.
3. Foru Ogasuneko, Gizarte Segurantzako eta Udaleko zerga-betebeharrak egunean ordainduta edukitzea. Enpresa eskatzailea eskualdekoa baldin bada, zerga-betebeharren egoera Udal Elkarteak zuzenean egiaztatuko du dagokion administrazioarekin harremanetan jarrita. Enpresa eskatzailea eskualdekoa ez bada, baldintza hori betetzen duela egiaztatzeke ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.
4. Administrazio edo erakunde publikoen edo txikitzat hartzen ez diren enpresen menpeko ez izatea edo horiek %50 edo gehiagoko parte-hartzerik ez izatea
5. Diru-laguntza publikoak jasotzetik baztertuta ez egotea arau-hausteak egiteagatik.
6. Diruz lagundutako kontratuaren altaren data izatea 2018koa.
7. Diruz lagundutako lan-kontratuari aplikatzea enpresari dagokion lan-hitzarmena.
8. Diru-laguntza bidez egindako kontratazioak enplegu-sorrera garbia eragin behar du enpresan, hau da: diru-laguntzaren bidez kontratatutako pertsona laneratu den hilabete horretako enpresako langileen kopuruak izan behar du aurreko 3 hilabeteetan enpresak batez beste zuen



langile kopurua baino handiagoa. Plantillaren batz bestekoa kalkulatzeko lanaldi osoak eta partzialak hartuko dira kontuan (azken horien kasuan lan egindako orduen proportzioan).

9. Jarraipen saioak egitea: diru-laguntza eskuratu duen enpresak bi saio egingo ditu Urola Kostako Udal Elkarteko teknikariarekin, lehena langabea kontratatzen duen unean eta bigarrena kontratua amaitzean dagoela; kontratatutako pertsonak, berriz, gutxienez bi jarraipen saio egingo ditu Urola Kostako Udal Elkarteko Laneratze Zerbitzuarekin, kontratuak irauten duen epearen barruan.

30.4. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Hona hemen Prestakuntza Bonoaren programan jaso daitezkeen diru-laguntzen zenbatekoak. Diru-laguntzaren oinarriari beste zutabeetako kopuruak gehituko zaizkio, kontratatutako pertsonaren generoaren, enpresaren kokapenaren eta kontratuaren iraupenaren arabera:

6 hilabeteko kontratuak	Kopurua (gehienez)			
	Oinarria	Kontratatua emakumea	Enpresa eskualdekoa	Kontratu mugagabea
Lanaldi osoa	2.200,00 €	+ 1.000,00€	+ 1.000,00€	+ 3.000,00
Lanaldi erdia	1.000,00 €	+ 500,00€	+ 400,00€	+ 1.250,00

Diru-laguntza izango da, gehienez ere, diruz lagundutako epealdiko lan-kostuen (lansaria gehi gizarte segurantzak) %75ekoa, goiko taulan agertzen diren gehienezko kopuru-mugekin.

30.5. Eskabideak.

Atal honetako diru-laguntzen eskabideak aurkeztu behar dira oinarri hauen 8. artikuluan ezarritako leku, modu eta epealdian.

Diru-laguntza eskuratzeko dakarren pertsona ezingo da kontratatu prestakuntza bonoa eskuratzeko prestakuntza-programa amaitu eta Udal Elkarteko dagokion zerbitzuaren aldeko balorazioa jaso arte.

Eskaerak ebatziko dira Udal Elkartearen sarrera erregistroan aurkeztu ahala, atal honetarako ezarritako kredituak agortu arte. Eskabideari diru-laguntza onartuko zaio era automatikoan, enpresa eskatzaileak eta kontratatutako pertsonak atal honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu ondoren.

Prestakuntza bonoa eskuratu duten langabeak kontratatzeke diru-laguntza eskabidea egiteko, honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- Eskabidea: B eranskina.
- Enpresaren IFKren fotokopia konpultsatua.
- Enpresaren helbide sozialaren egiaztagiria.
- Enpresako eskatzaile(ar)en edo ordezkari(ar)en NANaren fotokopia konpultsatua.



30.6. Zuriketa eta ordainketak.

Diru-laguntza ordainduko da 2 zatitan, era honetara:

Lehen ordainketa: Diru-laguntza eskuratzen duen enpresa onuradunari diru-laguntzaren %50 ordainduko zaio prestakuntza bonoa eskuratu duen langabea kontratatzen duenean.

Kontratua egin izana egiaztatu eta lehen ordainketa egiteko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) B1 eranskina.
- b) Lan-kontratuaren fotokopia konpultsatua.
- c) Gizarte Segurantzako alta-dokumentuaren fotokopia konpultsatua.
- d) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagirien kopiak:
 - ziurtagiri bat agertzen duena kontratatutako pertsona laneratu aurreko 3 hilabeteetako enpresaren batez besteko plantilla
 - beste ziurtagiria agertzen duena kontratatutako pertsona laneratutako hilabeteko enpresaren batez besteko plantilla.

Amaierako ordainketa: Diruz lagundutako kontratua sei hilabetekoa baldin bada, gainerako %50 ordainduko zaio diruz lagundutako 6 hilabeteko epealdia amaitu, amaierako justifikazioa aurkeztu eta ontzat jotzen denean. Diruz lagundutako kontratua mugagabea baldin bada, gainerako %50 ordainduko zaio kontratuak 10 hilabete bete (altaren datatik kontatzen hasita), amaierako justifikazioa aurkeztu eta ontzat jotzen denean.


Amaierako justifikazioa egiteko honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- a) B2 eranskina.
- b) Diruz lagundutako kontratuaren epealdiko enpresaren TC1 eta TC2 dokumentuen kopiak.
- c) Diruz lagundutako kontratuaren nomen kopiak.

Diruz lagundutako lan-kontratua amaitzen bada deialdian adierazitako gutxieneko epea edo eskabidean adierazitako epea bete baino lehen, eskatzaileak diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko du, bi kasu hauetan izan ezik: kontratua langilearen borondatez eta erabakiz amaitzen denean edo enpresak kaleratzen duenean kausa objektiboetan oinarrituta. Kasu horietan diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da lan-kontratua indarrean egon den epearen proportzioan eta, kasuan kasu, diru-laguntzaren zenbatekoa doitu eta dagozkion itzulketak egiteko prozedura bideratuko da.

Bi kasu horietan enpresa onuradunak aukera izango du, nahi izanez gero, lanpostua utzi duen pertsonaren ordezkari berberak betetzen dituen beste langabe bat kontratatu eta diru-laguntza osorik eskuratzeko.

Diruz lagundutako kontratuaren iraupen-epearen barruko gaixotasun arrunten nahiz lan-gaixotasunen ondorio diren bajak ez dira diruz lagunduko, betiere bajaran dagoen langilea ordezkatzeko ez bada. Kasu horretan kontratazio epeak lagunduko dira soilik.



31. artikulua. “Kontratazioa + Jarraipena” programa.

Kontratazioa eta jarraipena uztartzen dituen diru-laguntza programa da.

Helburua da laguntza ekonomikoak ematea eskualdeko (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaia) enpresa txiki eta ertainei, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izena emanda dauden eskualdeko pertsona langabeak kontratatzeko.

Diruz lagundutako kontratua izango da gutxienez 6 hilabetekoa eta lanaldi erdikoa edo lanaldi osoa. Halaber, diruz lagundutako kontratuaren alta datak izan behar du 2018koa

Kontratzen den pertsonak langabezia egoeran egon behar du diruz lagundutako kontratua egiten den unean.

Diru-laguntza bidez egindako kontratazioak enplegu-sorrera garbia eragin behar du enpresan, hau da: diru-laguntzaren bidez kontratatutako pertsona laneratu den hilabete horretako enpresako langileen kopuruak izan behar du aurreko 3 hilabeteetan enpresak batez beste zuen langile kopurua baino handiagoa. Plantillaren batz bestekoa kalkulatzeko lanaldi osoak eta partzialak hartuko dira kontuan (azken horien kasuan lan egindako orduen proportzioan).

Jarduera berrien kasuan, ezingo da erabili laguntza-mota hau norbere burua kontratatzeko.

Diru-laguntza eskuratzen duten langabeari eta enpresari jarraipena egingo zaie, kontratua gauzatu ondoren, era honetara:

- Enpresa: diru-laguntza eskuratu duen enpresak bi saio egin beharko ditu Urola Kostako Udal Elkarteko teknikariarekin, lehendabizikoa langabea kontratatzen duen unean eta bigarrena kontratua amaitzear dagoela.
- Langabea: Kontratutako pertsonak gutxienez bi jarraipen saio egin beharko ditu Urola Kostako Udal Elkarteko Laneratze Zerbitzuarekin, kontratuak irauten duen epearen barruan.

Programa honetan diru-laguntza ematen zaien enpresen eta langabeen betebeharra da aipatutako jarraipen-saioak egitea.

31.1. Diru-laguntzen onuradunak.

Kontratazioa+Jarraipena programako onuradun izango dira ondoko baldintza hauek betetzen dituzten enpresak:

1. Edozein forma juridikoko enpresa edo erakunde enplegatzailea izatea, egoitza (helbide soziala edo lantokia) eskualdean (Aia, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaia) duena.
2. Kontratutako pertsonak bere lantokia eskualdean (Aia, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaia) izatea.
3. IAE-JEZn alta emanda egotea eta zerga horren betebeharrak egunean ordainduta izatea, betiere enpresaren jarduerak zerga hori ordaintzea eskatzen badu. Zerga ordaintzetik salbuetsita egonez gero, horrela adieraziko da zinpeko adierazpen bidez.



4. Foru Ogasuneko, Gizarte Segurantzako eta Udaleko zerga-betebeharrak egunean ordainduta edukitzea.
5. Administrazio edo erakunde publikoen edo txikitzat hartzen ez diren enpresen menpeko ez izatea edo horiek %50 edo gehiagoko parte-hartzerik ez izatea
6. Diru-laguntza publikoak jasotzetik baztertuta ez egotea arau-hausteak egiteagatik.
7. Diruz lagundutako kontratuaren alta 2018koa izatea.
8. Diru-laguntzarekin kontratatutako langabea eskualdean erroldatuta egotea (Aia, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaia).
9. Diru-laguntzarekin kontratatutako langabea kontratua egiteko unean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egotea, langabezia egoeran.
10. Diruz lagundutako lan-kontratuari aplikatzea enpresari dagokion lan-hitza. Arma.
11. Diru-laguntza bidez egindako kontratazioak enplegu-sorrera garbia eragin behar du enpresan, hau da: diru-laguntzaren bidez kontratatutako pertsona laneratu den hilabete horretako enpresako langileen kopuruak izan behar du aurreko 3 hilabeteetan enpresak batez beste zuen langile kopurua baino handiagoa. Plantillaren batz bestekoa kalkulatzeko lanaldi osoak eta partzialak hartuko dira kontuan (azken horien kasuan lan egindako orduen proportzioan).
12. Jarraipen saioak egitea: diru-laguntza eskuratu duen enpresak bi saio egingo ditu Urola Kostako Udal Elkarteko teknikariarekin, lehena langabea kontratatzen duen unean eta bigarrena kontratua amaitze dagoela; kontratatutako pertsonak, berriz, gutxienez bi jarraipen saio egingo ditu Urola Kostako Udal Elkarteko Laneratze Zerbitzuarekin, kontratuak irauten duen epearen barruan.

31.2. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Hona hemen Kontratazioa+Jarraipena programan jaso daitezkeen diru-laguntzen zenbatekoak. Diru-laguntzaren oinarriari beste zutabeetako kopuruak gehituko zaizkio, kontratatutako pertsonaren generoaren eta kontratuaren iraupenaren arabera:

6 hilabeteko kontratuak	Kopurua (gehienez)		
	Oinarria	Kontratatua emakumea	Kontratu mugagabea
Lanaldi osoa	2.200,00 €	+1.000,00 €	+3.000,00
Lanaldi erdia	1.000,00 €	+500,00 €	+1.250,00

Diru-laguntza izango da, gehienez ere, diruz lagundutako epealdiko lan-kostuen (lansaria gehi gizarte segurantzak) %75ekoa, goiko taulan agertzen diren gehienezko kopuru-mugekin.

31.3. Balorazio irizpideak

Atal honetako diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Enpresen eskabideen balorazioa egingo da irizpide hauen arabera:



Balorazio irizpideak	Puntuak (gehienez)
Enpresa eskatzaileak 2016. urteaz geroztik Urola Kostako Udal Elkarteak (UKUE) antolatutako ekimen batean (prestakuntza, lankidetzatza taldea eta eskualdearen promoziorako ekintzak) parte hartu izana, gutxienez.	5 puntu
Kontratutako pertsonaren adina izatea \geq 45 urte, kontratua egiten zaion unean	5 puntu
Hauetako gai edo arloren batean ziurtagiri homologatuak edota planak landuta eta indarrean edukitzea: ISO9001 Kalitate kudeaketa, ISO 14001 Ingurumen kudeaketa, prebentzio-ziurtagiria (OHSAS edo ISO 45001:2018), berdintasun plana, euskara plana, partaidetza plana.	1 puntu
Enpresa eskatzaileak 10 langile edo gutxiago izatea.	1 puntu
Urola Kostako Udal Elkartearen Lan Eskaintzen bitartekotza-zerbitzua erabiltzea.	1 puntu

Balorazio Mahaiak goiko taulan ezarritako puntuetan balio partzialak aplikatu ahal izango ditu, irizpide jakin bat osorik betetzen ez bada. Eskabideen balorazioan berdinketarik gertatzen bada, eskabideen Sarrera Erregistroko hurrenkera hartuko da kontuan.

31.4. Eskabideak.

Atal honetako diru-laguntzen eskabideak aurkeztu behar dira oinarri hauen 8. artikuluan ezarritako leku, modu eta epealdian.

Kontratazioa+Jarraipena programaren bidez langabeak kontratatzeke diru-laguntzaren eskabidea egiteko, honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) Eskabidea: B eranskina.
- b) Enpresaren IFKren fotokopia konpultsatua.
- c) Enpresaren helbide soziala.
- d) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagiria, agertzen duena enpresaren langile kopurua eskabidea aurkezteko hilabetean.
- e) Enpresako eskatzaile(ar)en edo ordezkari(ar)en NANaren fotokopia konpultsatua.
- f) Eskatzaileak lehiaketan baloratzeko irizpideak betetzen dituela egiaztatzeko ziurtagiriak, hala nola: ziurtagiriak (ingurumena, kalitatea, prebentzioa) eta hainbat arlotako planak ezarrita daudela egiaztatzeko dokumentuak (berdintasuna, euskararen normalizazioa, partaidetza).

31.5. Zuriketa eta ordainketak.

Diru-laguntza ordainduko da 2 zatitan, era honetara:

Lehen ordainketa: Diru-laguntza eskuratzen duen enpresa onuradunari diru-laguntzaren %50 ordainduko zaio langabea kontratatzen duenean. Kontratua egin izana egiaztatu eta lehen ordainketa egiteko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:



- a) B1 eranskina.
- b) Lan-kontratuaren fotokopia konpultsatua.
- c) Gizarte Segurantzako alta-dokumentuaren fotokopia konpultsatua.
- d) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagirien kopiak:
 - ziurtagiri bat agertzen duena kontratatutako pertsona laneratu aurreko 3 hilabeteetako enpresaren batez besteko plantilla
 - beste ziurtagiria agertzen duena kontratatutako pertsona laneratutako hilabeteko enpresaren batez besteko plantilla.

Amaierako ordainketa: Diruz lagundutako kontratua sei hilabetekoa baldin bada, gainerako %50 ordainduko zaio diruz lagundutako 6 hilabeteko epealdia amaitu, amaierako justifikazioa aurkeztu eta ontzat jotzen denean. Diruz lagundutako kontratua mugagabea baldin bada, gainerako %50 ordainduko zaio kontratuak 10 hilabete bete (altaren datatik kontatzen hasita), amaierako justifikazioa aurkeztu eta ontzat jotzen denean. Amaierako justifikazioa egiteko honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- a) B2 eranskina.
- b) Diruz lagundutako kontratuaren epealdiko enpresaren TC1 eta TC2 dokumentuen kopiak.
- c) Diruz lagundutako kontratuaren nominen kopiak.

Diruz lagundutako lan-kontratua amaitzen bada deialdian adierazitako gutxieneko epea edo eskabidean adierazitako epea bete baino lehen, eskatzaileak diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko du, bi kasu hauetan izan ezik: kontratua langilearen borondatez eta erabakiz amaitzen denean edo enpresak kaleratzen duenean kausa objektiboetan oinarrituta. Kasu horietan diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da lan-kontratua indarrean egon den epearen proportzioan eta, kasuan kasu, diru-laguntzaren zenbatekoa doitu eta dagozkion itzulketak egiteko prozedura bideratuko da. Bi kasu horietan enpresa onuradunak aukera izango du, nahi izanez gero, lanpostua utzi duen pertsonaren ordezkari berberak betetzen dituen beste bat kontratatu eta diru-laguntza osorik eskuratzeko.

Diruz lagundutako kontratuaren iraupen-epearen barruko gaixotasun arrunten nahiz lan-gaixotasunen ondorio diren bajak ez dira diruz lagunduko, betiere bajaran dagoen langilea ordezkatzeko ez bada. Kasu horretan kontratazio epeak lagunduko dira soilik.

32. artikulua. Gorabeherak jakinarazteko betebeharra.

Onuradunaren betebeharra da diruz lagundutako kontratazioaren inguruko gorabeherak Urola Kostako Udal Elkarteari jakinaraztea, gertatu eta berehala, hala nola: diruz lagundutako kontratazioa ez egitea erabakitzea; kontratua diruz lagundutako epealdia amaitu aurretik amaitzea; ordezkaria kontratatzea; eta abar.

33. artikulua. Bateriaezintasunak.

Lerro honetako diru-laguntzak bateraezinak izango dira soilik Urola Kostako Udal Elkarteak oinarri hauetan zehaztu dituen beste diru-laguntza lerroekin: jarduera ekonomiko berriak sortzea (I. lerroa); inbertsioak (III. lerroa); eta, hezkuntza zentro eta enpresen lankidetzak proiektuak (IV. lerroa).



III. DIRU-LAGUNTZA LERROA

INBERTSIOETARAKO LAGUNTZAK

34. artikulua. Xedea.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak emango dira enpresaren jarduerarekin zerikusia duten inbertsioetarako. Hau da, diruz lagunduko dira inbertsio elementu berriak erostea eta horien finantza-errentamendua, ondasunaren merkatu-balioraino. Inbertsioztat hartuko dira kontabilitateko plan orokorrean inbertsioen partidetan agertzen diren gastuak.

Inbertsioak gutxienez 3.000,00 eurokoa izan behar du (BEZ kanpo). Eskaera izan daiteke inbertsio bakar batena edo urtean zehar egindako inbertsioen baturarena, baina, betiere, inbertsio gai bakoitza gutxienez 3.000,00 eurokoa baldin bada (hau da, batzen den inbertsio bakoitzaren kopuruak 3.000,00 eurokoa edo handiagoa izan behar du).

Diru-laguntza deialdi honetan soilik onartuko dira Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde-eremuan egindako inbertsioak eta, beraz, diruz lagunduko diren inbertsioak Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian kokatutako lantokietan egin beharko dira.

Finantza-errentamenduak onartuko dira soilik kontratuaren amaieran ondasuna erosteko betebeharra ezartzen bada. Kontratua diru-laguntza deialdia hau argitara eman aurretik sinatu baldin bada eta amaieran ondasuna erosteko betebeharra zehazten ez badu, aurkeztu ahal izango da, kontratuaren eranskin gisa, bi aldeek (finantza erakundeak eta enpresa eskatzaileak) sinatutako konpromiso-dokumentua, errentamendu-kontratuaren amaieran ondasuna erosteko konpromisoa ezartzen duena.

35. Balorazio irizpideak.

Atal honetako diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Eskabideen balorazioa egingo da irizpide hauen arabera:

Balorazio irizpideak	Puntuak gehienez
Inbertsioaren hornitzailea eskualdekoa izatea	10 puntu
2016. urteaz geroztik Urola Kostako Udal Elkarteak (UKUE) antolatutako ekimen bat burutu izana, gutxienez.	5 puntu
Enpresa eskatzaileak hauetako gai edo arloren batean ziurtagiri homologatuak edota planak landuta eta indarrean edukitzea: ISO9001 Kalitate kudeaketa, ISO 14001 Ingurumen kudeaketa, prebentzio-ziurtagiria (OHSAS edo ISO 45001:2018), berdintasun plana, euskara plana, partaidetza plana.	1 puntu
Enpresa eskatzaileak 10 langile edo gutxiago izatea.	1 puntu
Enpresa eskatzailearen jarduera izatea lehen sektorekoa edo bigarren edo hirugarren sektoreko bi jarduera-mota hauetakoak: itsasoa edo sormen industriak. (E eranskinaren arabera).	5 puntu



Balorazio Mahaiaik goiko taulan ezarritako puntuetan balio partzialak aplikatu ahal izango ditu, irizpide jakin bat osorik betetzen ez bada.

Eskabideen balorazioan berdinketarik gertatzen bada, lehendabizi aurreko deialdietan inbertsioetarako diru-laguntzarik lortu ez dutenei emango zaie lehentasuna; eta ondoren, eskabideen Sarrera Erregistroko hurrenkera hartuko da kontuan.

36. artikulua. Diru-laguntzen onuradunak.

Diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak:

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea.
- Lantokia Aia, Orio, Getaria, Zarautz edo Zumaiako udalerrietako batean edukitzea.
- Diruz lagunduko diren inbertsioak Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaiako kokatutako lantokietan eginak.
- Enpresa eskatzailea sortuta egotea 2017-07-01 baino lehen.
- Diru-laguntza gai diren inbertsioak 2018 ekitaldian egitea.
- Foru Ogasuneko, Gizarte Segurantzako eta Aia, Orio, Getaria, Zarautz eta Zumaiako Udaletako zerga ordainketak egunean ordainduta edukitzea.
- Laneko arriskuen prebentzioko 31/1995 Legeak eta, orobat, laneko arriskuak prebenitzeko araubideak eskatzen dituen plan eta neurriak ezarrita izatea.

37. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Hona hemen diru-laguntza-lerro honetako laguntzen ezaugarriak:

- Ematen diren laguntzek itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izaera izango dute.
- Diru-laguntzaren kopurua izango da, gehienez ere, inbertsioaren %30, betiere, gehienez, 2.000,00 euroko mugarekin (BEZ kanpo).
- Diru-laguntzaren zenbatekoa %5 handiagoa izango da (betiere, gehienez, 100,00 euroko gehigarria) enpresa eskatzailea baldin bada lehen sektorekoa edo bigarren edo hirugarren sektoreko bi jarduera-mota hauetakoren batekoa: itsasoa edo sormen industriak. (E eranskinaren arabera). Gehigarri hau aplikatuko zaio enpresa eskatzailearen jarduera ekonomikoetako bati gutxienez E eranskinean zerrendatutako JEZko epigrafe bat baldin badagokio. Bere epigrafea eranskin horretako zerrendan agertu ez arren, enpresa eskatzailearen iritziz bere jarduera eranskineko epigrafe horietako batean jasotakoarekin bat baldin badator, dokumentu bidez erakutsi eta egiaztatu beharko du bat etortze hori. Horretarako, aurkeztu ahal izango ditu egoki irizten dituen dokumentuak, hala nola, publizitate elementuak, fakturazioan jasotako lanak, elkarte sektorialeko bazkide txartela....
- Diru-laguntzaren zenbatekoa %5 handiagoa izango da (betiere, gehienez, 100,00 euroko gehigarria) inbertsioaren hornitzailea eskualdeko lantoki bat baldin bada. Inbertsioaren hornitzaileak eskualdekoak eta kanpokoak baldin badira, gehigarria kalkulatu da eskualdeko hornitzaileen zenbatekoen batura oinarritzat hartuta.
- Eskaera izan daiteke inbertsio bakar batena edo urtean zehar egindako inbertsioen baturarena. Nolanahi ere den, inbertsio gai bakoitzak 3.000,00 eurokoa izan behar du, gutxienez (BEZ kanpo).



- Finantza-errentamenduen kasuan, 2018an zehar egindako ordainketak hartuko dira inbertsioaren oinarritzat. Inbertsioen diru-laguntzaren kalkuluetarako ez dira kontuan hartuko errentamendu-kontratuarekin lotutako bestelako gastuak, hala nola, errentatzailearen marjina, interesen kostuak, gastu orokorrak. aseguru-gastuak...
- Inbertsioetarako laguntza bakarria emango da enpresa bakoitzeko.

38. artikulua. Eskabideak.

Atal honetako diru-laguntzen eskabideak aurkeztu behar dira oinarri hauen 8. artikuluan ezarritako leku, modu eta epealdian. Diru-laguntza eskatzeko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) Eskabidea: C eranskina
- b) IFKren fotokopia konpultsatua.
- c) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagiria, agertzen duena enpresaren langile kopurua eskabidea aurkezteko hilabetean.
- d) Eskatzaile(ar)en edo ordezkari(ar)en NANaren fotokopia konpultsatua.
- e) IAE-JEZren alta-dokumentuaren kopia konpultsatua.
- f) Eskatzaileak lehiaketan baloratzeko irizpideak betetzen dituela egiaztatzeko ziurtagiriak, hala nola: ziurtagiriak (ingurumena, kalitatea, prebentzioa) eta hainbat arlotako planak ezarrita daudela egiaztatzeko dokumentuak (berdintasuna, euskararen normalizazioa, partaidetza).

39. artikulua. Zuriketak eta ordainketak

Diru-laguntza ordainduko da ordainketa bakarrean (%100), diru-laguntza ematea onartu, inbertsioaren zuriketa aurkeztu eta ontzat eman ondoren. Eskabidean adierazitako inbertsioaren zenbatekoa eta zuriketan aurkeztutakoa bat ez baldin badatoz, zenbateko txikiena hartuko da kontuan. Inbertsioaren zuriketa egiteko honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- a) C1 eranskina.
- b) Inbertsioaren fakturak eta ordainketen egiaztagiriak (transferentzien egiaztagiriak edo gisa berekoak). Inbertsioaren fakturak 2018ko data izan behar du. Urte amaieran egiten diren inbertsioen kasuan, amaierako zuriketa aurkeztu beharko da, beranduenera, 2019ko urtarrilaren 31 baino lehen.

40. artikulua. Gorabeherak jakinarazteko betebeharra.

Onuradunaren betebeharra da diruz lagundutako jardueraren (inbertsioaren) inguruko gorabeherak Urola Kostako Udal Elkarteari jakinaraztea, gertatu eta berehala, hala nola: diruz lagundutako inbertsioa ez egitea erabakitzea; diru-laguntzaren zenbatekoa finkatzeko baldintzaren baten aldaketa eta abar.

41. artikulua. Batera ezintasunak.

Diru-laguntza lerro honetako diru-laguntzak ez dira bateragarriak inbertsioetarako bestelako diru-laguntzekin.

IV. DIRU-LAGUNTZA LERROA

HEZKUNTZA ZENTROEK ETA ENPRESEK PROIEKTUAK ELKARLANEAN GARATZEKO LAGUNTZAK

42. artikulua. Xedea.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak emango dira eskualdeko enpresek eta hezkuntza zentroek lankidetzan garatutako proiektuetarako. Helburua da Urola Kostako Udal Elkartearen eremuan enpresa-sarea eta goi mailako hezkuntza zentroak elkarrengana hurbilduko dituen espazio iraunkorra sortzea, ezagutza eta esperientziak partekatu eta, lankidetzan, egitasmo berritzaileak zehaztu eta garatzeko. Horrekin, eskualdeko enpresei lagundu nahi diegu hobetzen, produktu eta zerbitzu berriak sor ditzaten.

Lankidetzan-proiektuan parte hartzen duten bazkideei dagokienez, enpresak eskualdekoa izan behar du (Aia, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaia) derrigorrez. Hezkuntza zentroa, berriz, eskualdekoa edo kanpokoa izan daiteke.

Egitasmoa aurkezten duten bazkide guztiak eskualdekoak baldin badira, eskabidean zehaztu behar duite zein izango den eskabidearen ardura duen titularra. Hori izango da Udal Elkartearen aurrean erantzule nagusia, ondorio guztietarako.

43. Balorazio irizpideak.

Atal honetako diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Eskabideen balorazioa egingo da irizpide hauen arabera:

Balorazio irizpideak	Puntuak (gehienez)
Proiektuan parte hartzen duten enpresa eta hezkuntza zentroak: <ul style="list-style-type: none"> • Bazkide guztiak eskualdekoak izatea (5 puntu) • Bazkide guztiak eskualdekoak ez izanik, bi bazkide gutxienez eskualdekoak izatea (2 puntu) 	5 puntu
Proiektuaren bazkide kopurua: <ul style="list-style-type: none"> • 2 bazkide (0 puntu) • 3 bazkide (1 puntu) • 3 bazkide baino gehiago (2 puntu) 	2 puntu
Egitasmoaren balio erantsia honako lan-lerroetan kokatzea (0,5 puntu bakoitzak): <ul style="list-style-type: none"> • Etorkizuneko balizko araudiei aurrea hartzea. • Merkatu berrietara bideratzeko estrategiak lantzea. • Funtzio berriak txertatzea. • Bezeroen beharrei erantzun eta aurrea hartzea. • IKTak txertatzea. • Prozesuen eraginkortasuna hobetzeko garatutako sistematikak ezartzea (prozesu baten eraginkortasuna areagotzeko helburuz erabiltzen den eragiketa-multzo edo metodoa. Eragiketa-multzo horiek, prozesuaren aurretik, bitartean eta bukatutakoan jarraitu beharreko urratsen jarraibideak zehaztuko ditu). 	3 puntu



Proiektuko bazkideren batek, 2016. urteaz geroztik, Urola Kostako Udal Elkarteak antolatutako ekimen batean (prestakuntza, lankidetzat taldea eta eskualdearen promoziorako ekintzak) parte hartu izana, gutxienez: <ul style="list-style-type: none">• Proiektuaren bazkide batek parte hartu badu puntu 1.• Proiektuaren bi bazkide edo gehiagok parte hartu badute 2 puntu.	2 puntu
Bazkide den eskualdeko enpresak 10 langile edo gutxiago izatea.	1 puntu
Bazkide guztiek hauetako gai edo arloren batean ziurtagiri homologatuak edota planak landuta eta indarrean edukitzea: ISO9001 Kalitate kudeaketa, ISO 14001 Ingurumen kudeaketa, prebentzio-ziurtagiria (OHSAS edo ISO 45001:2018), berdintasun plana, euskara plana, partaidetza plana.	1 puntu

Balorazio Mahaiak goiko taulan ezarritako puntuetan balio partzialak aplikatu ahal izango ditu, irizpide jakin bat osorik betetzen ez bada.

Eskabideen balorazioan berdinketarik gertatzen bada, eskabideen Sarrera Erregistroko hurrenkera hartuko da kontuan.

44. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

Diru-laguntza hauen onuradunek baldintza eta betebeharrak hauek bete behar dituzte:

- Egitasmoan parte hartzen duen enpresa eskualdean kokatutako egotea (Aia, Getaria, orio, Zarautz, Zumaia).
- Egitasmoan parte hartzen duten partaide guztiak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea.
- Egitasmoan parte hartzen duten partaide guztiek Foru Ogasuneko, Gizarte Segurantzako eta Udaletako zerga ordainketak egunean ordainduta edukitzea.
- Egitasmoan parte hartzen duten partaide guztiek laneko arriskuaren prebentzio-legearen 31/1995 Legeak eta, orobat, laneko arriskuak prebenitzeko araubideak eskatzen dituen plan eta neurriak ezarrita izatea.
- Diru-laguntza gai diren ekintzak (lankidetzat egitasmoa) 2018ko ekitaldian gauzatzea.

45. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Hona hemen diru-laguntza-lerro honetako laguntzen ezaugarriak:

- Ematen diren diru-laguntzek itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izatera izango dute.
- Diru-laguntza onartu eta ordainduko zaio proiektuaren arduradun den bazkideari, eskabidean besterik adierazi ezean. Eskabidean zehaztu behar da bazkide edo parte-hartzaile bakoitzak proiektuan duen parte hartzearen ehunekoa eta, nahi izanez gero, eskatu ahal izango da ordainketa ehuneko horien arabera egiteko.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa izango da, gehienez ere, onartutako proiektuaren %40 eta, gehienez ere, 3.000,00 eurokoa (BEZ kanpo).
- Bazkide/partaide guztiak eskualdekoak baldin badira, diru-laguntzaren zenbatekoa izango da, gehienez ere, onartutako proiektuaren %80 eta, gehienez ere, 7.000,00 eurokoa (BEZ kanpo).



- Egitasmo baterako eskabide bakarra aurkeztu ahal izango da.
- Enpresa edota hezkuntza zentro batek egitasmo bat baino gehiago aurkeztu ahal izango ditu.

46. artikulua. Gastu hautagarriak.

Diru-laguntza lerro honetan gastu hautagarritzat onartuko dira soilik 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra bitarteko honako gastuak:

- Proiektua garatu du(t)en hezkuntza zentzoko pertsonaleko gastuak (betiere egitasmoan parte hartu duten langileenak soilik).
- Egitasmoa bideratzeko beharrezko materialaren gastuak (material horien erosketa diru laguntza honen eskatzaileak egin beharko du eta fakturaren kontzeptuan adieraziko da dena delako lankidetzaren egitasmoaren gastuak direla).

Ez dira onartuko honako gastuak:

- Gastu orokorrak, hala nola: eraikin eta instalazioen mantentze gastuak, klimatizazioa, argi indarra, ura, garbiketa, aseguru-primak, alokairuak, segurtasun sistemak, telefono eta komunikazio gastuak, kostu informatikoak ...).
- Dietak eta garraio gastuak.
- Bulego materiala (inprimagailuak eta kontsumigarriak).
- Egitasmoa bideratzeko azpi kontratazioak.

Oinarriotan zehaztu gabeko bestelako gastuak hautagarritzat hartu ala ez Udal Elkarteak erabakiko du.

47. artikulua. Diru laguntzaren eskabidea.

Atal honetako diru-laguntzen eskabideak aurkeztu behar dira oinarri hauen 8. artikuluan ezarritako leku, modu eta epealdian.

Diru-laguntzaren eskabidea egingo du eskualdekoa den bazkideak. Bazkide guztiak eskualdekoak badira, eskabidean adieraziko dute zein den eskabidearen ardura duen titularra.

Eskabidea aurkezteko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) Eskabidea: D eranskina.
- b) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagiria, agertzen duena enpresaren langile kopurua eskabidea aurkezteko hilabetean.
- c) Egitasmoan parte hartuko duten partaide guztien (enpresak eta hezkuntza zentzoren) dokumentu hauek:
 - IFKren fotokopia konpultsatua
 - IAE-JEZren alta-dokumentuaren kopia konpultsatua
- d) Eskatzaile(ar)en edo ordezkari(ar)en NANaren fotokopia konpultsatua.
- e) Eskatzaileak lehiaketan baloratzeko irizpideak betetzen dituela egiaztatzeko ziurtagiriak, hala nola: ziurtagiriak (ingurumena, kalitatea, prebentzioa) eta hainbat arlotako planak ezarrita daudela egiaztatzeko dokumentuak (berdintasuna, euskararen normalizazioa, partaidetza).



48. Diru-laguntzen zuriketa eta ordainketa.

Diru-laguntza ordainduko da ordainketa bakarrean (%100), diru-laguntza ematea onartu, diruz lagundutako lankidetzaren proiektuaren zuriketa aurkeztu eta ontzat eman ondoren.

Eskabidean adierazitako lankidetzaren egitasmoaren zenbatekoa eta zuriketaren aurkeztutakoa bat ez baldin badatoz, zenbateko txikiena hartuko da kontuan.

Lankidetzaren egitasmoaren zuriketa egiteko honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- a) D1 eranskina: memoria teknikoa
- b) D2 eranskina: memoria ekonomikoa
- c) Gastu hautagarriak zurrizko dokumentuak:
 - Pertsonaleko gastuak: egitasmoa gauzatzen parte hartu duten hezkuntza zentro(e)tako pertsonen nomina eta TCak eta banketxeko ordainketa-agiriak.
 - Materialen gastuak: fakturak eta ordainketen egiaztagiriak (transferentzien egiaztagiriak edo gisa berekoak). Fakturak 2018ko data izan behar dute. Fakturaren kontzeptuan adieraziko da dena delako lankidetzaren egitasmoaren gastuak direla.

Zuriketa hori aurkeztu beharko da, beranduenera, egitasmoa amaitu eta bi hilabeteko epearen barruan eta, betiere, 2019ko otsailaren 28a baino lehen.

49. artikulua. Gorabeherak jakinarazteko betebeharra.

Onuradunaren betebeharra da diruz lagundutako jardueraren (lankidetzaren egitasmoaren garapena) inguruko gorabeherak Urola Kostako Udal Elkarteari jakinaraztea, gertatu eta berehala, hala nola: diruz lagundutako egitasmoa ez garatzea erabakitzea; egitasmoaren alderdi esanguratsuetan aldaketak egitea eta abar.

50. artikulua. Bateriaezintasunak.

Diru-laguntza lerro honetako diru-laguntzak bateragarriak dira helburu bera duten bestelako diru-laguntzekin, betiere, jasotako diru-laguntza guztiekin gastu hautagarrien zenbatekoaren %100 gainditzen ez bada.